

II. ERANSKINA

ELKARTEAREN ESTATUTUAK

**MENDINET LANDA GARAPENAREN AURRERAPENERAKO ELKARTEAREN
ESTATUTUAK**

LEHEN KAPITULUA

IZENA

1. artikulua- MENDINET LANDA GARAPENAREN AURRERAPENERAKO ELKARTEAREN Estatutu hauek aldatu egin dira Euskadiko elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legeak eta elkartzeko eskubideari buruzko martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoak xedatutakoaren arabera eta Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuko 9. eta 10.13 artikuluek xedatutakoa kontuan hartuz.

Hauek gobernatzeko dute aipatutako elkartea: adierazitako elkarteei buruzko Legeak; Estatutu hauek, betiere Legearen aurkakoak ez badira; gobernu organoek balio duen eran hartutako akordioek, betiere Legearen eta/edo Estatutuen aurkakoak ez badira; eta Eusko Jaurlaritzak onar ditzakeen arauzko xedapenek, arau osagarri moduan.

XEDEAK

2. artikulua- Elkartea honen xedeak dira:

1. Landa garapeneko LEADER estrategietan parte hartzea, haien kudeatzaile gisa. Estrategia horiek dira Eusko Jaurlaritzak programazio denboraldi bakoitzerako onartzen dituen landa garapeneko programetan kokatzen direnak.
2. Administrazioak sentsibilizatzea, jarduketan xede diren eremuetako baliabide endogenoen aprobetxamendua optimizatu dadin eta, hala, eremuak modu harmonikoan eta integratuan garatu daitezzen.
3. Entitate elkartuei landa garapenaren inguruko informazio guztia ematea, haiek zentro hartzaile nahiz banatzaile gisa jardun; Elkartek edo entitate elkartuek gauzatu ditzaketen une bakoitzeko zuzkiduren, baliabideen eta proiektuen berri ematea, batik bat.
4. Entitate elkartuen artean landa garapenaren arloko esperientziak eta esku hartzeko metodologiak elkarren artean trukatzeko ahalbidetzea.
5. Garapen programetan parte hartzea eta haiek prestatzea.

Helburu horiek erdiesteko, ondorengo jarduera hauek burutuko dira, legezko betekizunak bete ondoren:

1. Jarduketan xede diren eremuetako gizarte egitura sentsibilizatzea, haren garapen interesen mesederako problematikei, baliabideei, ekintzei eta proiektuei buruz.
2. Landa garapeneko proiektuak bultzatzea LEADER ekimenaren esparruan genero ikuspegia txertatuz eta emakumeen ekintzailatza

sustatuz.

3. Landa eremuek beren garapenerako dituzten arazoengatik inguruko mintegiak, hitzaldiak, jardunaldiak, ikerketak eta azterketak antolatzea, koordinatzea eta gauzatzea, genero ikuspegiarekin eta emakumeen lana bisibilizatuz eta aitortuz, eta, hala badagokio, baita material mota oro editatzea ere, euskarri idatzian, ikus-entzunezkoan edo elektromagnetikoan; materiala izango da espezializatua edo didaktikoa edo prestakuntza materiala edo, besterik gabe, dibulgazio materiala.
4. Dagokionari landa garapenaren inguruko edozein programa edo proiektu eskatzea eta, hala badagokio, gauzatzea.
5. Garapenaren inguruan diharduten kolektibo guztiek eta, bereziki, Elkarteak osatzen dutenek behar bezala prestatuak eta eguneratuak egoteko behar dituzten ekintzak edo jarduerak proiektatzea, prestatzea eta gauzatzea. Prestakuntza horretan genero ikuspegia txertatuta egongo da.
6. Antzeko entitateekin esperientzi trukaketa eta jarduera ildoan bilaketa bateratua sustatzea.
7. Aurreko jarduerekin lotura izan dezaketen gainerako beste jarduerak gauzatzea, aurrekoak izan edo ondorengoak izan.
8. Administrazio publikoekin behar diren kontratu eta hitzarmen guztiak sinatzea, helburuak behar bezala betetzeko.

Aurreko atalean deskribatutako jarduerak alde batera utzi gabe, ElkarTEAK, bere helburuak betetzeko, ekintza hauek gauzatu ditzake:

- Mota guztietako ekonomia jarduerak garatzea, betiere bere helburuak betetzera bideratuta badaude, edo helburu horiek betetzeko baliabideak biltzea.
- Ondasun mota oro eskuratzea eta edukitzea, edozein tituluren bitartez, eta edozein egintza eta kontratu mota sinatzea.
- Edozein akzio mota erabiltzea, betiere legeen edo Estatutuen arabera.
- Kontratatzea pertsona fisikoekin edo juridikoekin, publiko nahiz pribatuekin, eta maila guztietako administrazio publikoekin, Zuzenbideak ahalbidetzen duen edozein modutan.

ELKARTEAREN BARNE FUNTZIONAMENDUA ETA LANA GOBERNATUKO DITUZTEN PRINTZIOAK EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNARI DAGOKIONEZ

- 3. artikulua-** Landa garapena jasangarria eta aldaketa estrukturalen sustatzaile izan dadin, emakume eta gizonen arteko berdintasun aukera

txertatu behar du bere ingurumen, gizarte eta ekonomia arloetan.

Elkartearen jarduna emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legeko eta emakume nekazarien Estatutuari buruzko 8/2015 Legeko xedapenek gobernatuko dute. Lege horietan, printzipio hauek ezartzen dira: tratu berdintasuna, emakumeentzako ekintza positiboa ahaztu gabe; aukera berdintasuna; eta genero ikuspegiaren txertaketa.

EGOITZA SOZIALA

4. artikulua- Elkartearen egoitza nagusia Arabako Arkauten dago: Arkaute, z/g - 01192 Arkaute (Araba).

Elkartek beste lokal batzuk eduki ditzake Euskal Autonomia Erkidegoan zehar, Batzar Nagusiak hala erabakitzen duenean.

Batzar Nagusiak erabakiko ditu Elkartearen egoitza sozialaren eta, egonez gero, gainerako lokalen lekualdatzeak, eta berak komunikatuko dio Elkarteen Erregistroari helbide berria.

LURRALDE EREMUA

5. artikulua- Bere eginkizunak Euskadiko Autonomia Erkidegoaren lurraldean beteko ditu batez ere.

IRAUPENA ETA IZAERA DEMOKRATIKOA

6. artikulua- Elkartea iraunkorra da sorreratik eta desegingo da Batzar Nagusiak bilera berezian hala erabakitzen duenean bakarrik VI. Kapituluaren arabera edo legeek xedatutako edozein arrazoiengatik.

Elkartearen barne antolamendua eta funtzionamendua demokratikoak izan beharko dira, aniztasuna erabat errespetatuz. Elkartzeko oinarrizko eskubidearen edozein alderdi urratzen duten itun, estatutu xedapen eta erabaki guztiak erabat deusezak izango dira.

BIGARREN KAPITULUA

GOBERNU ETA ADMINISTRAZIO ORGANOAK

7. artikulua- Elkartearen gobernua eta administrazioa kide anitzeko organo hauen kargura egongo dira:

- Batzar Nagusia, entitate elkartuek osatua, organo gorena.
- Zuzendaritza Batzordea, kide anitzeko zuzendaritza organo iraunkorra.

BATZAR NAGUSIA

8. artikulua- Batzar Nagusia entitate elkartu guztiez osatua dago eta haien borondatea adierazteko organoa da. Ohiko bilerak eta bilera bereziak egingo ditu, eta Zuzendaritza Batzordeko kideak joango dira bileretara.

Batzar Nagusiko presidente, idazkari eta diruzain karguak Zuzendaritza Batzordean kargu horiek dituztenek izango dituzte. Presidentea, idazkaria edo diruzaina egon ezean edo falta bada, bilerara bertaratutakoen gehiengoz izendatuko da.

9. artikulua- Batzar Nagusiak gutxienez ohiko bilera bat egin beharko du urtean, lehenengo hiruhilekoan, hurrengo artikuluko 1, 2 eta 3. puntuetan aureikusitako erabakiak hartzeko.

10. artikulua- Aurreko artikulua xedatutakoa eta Estatutu hauek aitortzen dizkioten beste eskumen batzuk alde batera utzi gabe, Batzar Nagusiaren eskumena da gai hauen inguruko erabakiak hartzea:

1. Urteko kontuak eta hurrengo ekitaldiko aurrekontua aztertzea eta onartzea.
2. Elkartearen urteko jarduketa plan orokorra onartzea.
3. Estatutuak aldatzea.
4. Elkartea desegitea.
5. Presidentea, idazkaria, diruzaina eta, egonez gero, kide anitzeko gobernu organoko kideak hautatzea eta kargugabetzea, eta baita haiek gainbegiratzea eta kontrolatzea ere.
6. Beste elkarte batzuekin federazioa edo konfederazioa osatzea, edo halakoren batetik ateratzea.
7. Ondasun higiezin erabilera edo besterentzea onestea.
8. Halakorik bada, gobernu organoko kideen ordainsariak erabakitzea.
9. Ohiko kuotak eta kuota bereziak zehaztea, nahiz eta Batzar Nagusiak ahalmen hori gobernu organoaren esku utz dezakeen, erabaki adieraziaren bidez.
10. Entitate elkartuei Elkartea behin betiko utzarazteko erabakia hartzea.
11. Entitate elkartu berriak onartzea.

12. Estatutuek Batzar Nagusiari esleitzen dizkioten beste eskumen guztiak.

11. artikulua- Batzar Nagusiak bilera berezia egingo du Zuzendaritza Batzordeak hala erabakitzen duenean, bere kabuz edo gutxienez entitate elkartuen herenak eskatzen duelako. Eskaera idatziz igorriko zaio presidenteari eta, idatzian, adierazi beharko da bilera zergatik eta zertarako den. Bilera berezia, nolana ere, erabaki hauek hartu behar direnean deituko da:

1. Estatutuak aldatzea.
2. Elkartea desegitea.

12. artikulua- Batzar Nagusiaren bilera deialdiak, izan ohiko bileretarako izan bilera berezietarako, idatziz egingo dira, bilerako lekua, eguna, ordua eta gai zerrenda adieraziz. Bilera deialditik bilera lehen deialdian egiteko jarritako egunera hamabost egun igaro beharko dira gutxienez; hala badagokio, bilera bigarren deialdian egingo den eguna eta ordua ere adieraziko dira idatzian. Bi bilera deialdien artean ez da ordubeteko tarte baina txikiagoa egongo.

13. artikulua- Batzar Nagusiaren ohiko bilerak nahiz bilera bereziak balio duen moduan erabakia egongo dira, lehen deialdian, entitate elkartuen erdia gehi bat biltzen direnean beren kabuz edo ordezkari bidez eta, bigarren deialdian, edozein dela ere bildu diren entitate elkartuen kopurua.

Entitate elkartuek beste edozein entitate elkartu bati eman diezaike beren ordezkari Batzar Nagusiaren bilerara joateko. Ordezkaritza idatziz emango da eta idatzia Batzar Nagusiko idazkariak eduki beharko du bilera egin baino gutxienez 24 ordu lehenago. Elkarreak egoitza soziala duen herritik kabpo bizi diren entitate elkartuek postaz bidali ahal izango dute beren ordezkari egiaztatzen duen agiria.

Bozketa idatziz eta saiorik gabe onartuko da entitate elkartuetako inor prozedura horren aurka azaltzen ez bada bakarrik.

14. artikulua- Batzar Nagusiaren erabakiak botoen gehiengo soilaz hartuko dira, aldeko botoak aurkako botoak baino gehiago direnean. Dena den, gehiengo kualifikatua beharko da, hau da, balio duen eran emandako botoen erdia baino gehiago aldeko botoak izan beharko dute, baldin eta onartu nahi baldin bada elkarrea desegitea, estatutuak aldatzea, ondasunak erabiltzea edo besterentzea eta ordezkari organoko kideen ordainsaria.

Entitate elkartu guztiak behartuta daude hartutako erabakiak betetzera,

baita bilerara bertaratu ez direnak eta aurka botatu dutenak ere.

ZUZENDARITZA BATZORDEA

15. artikulua- Zuzendaritza Batzordea kide anitzeko organoa da, Elkartearen gobernatu, kudeatu, administratu eta ordezkatzeko duena, Batzar Nagusiaren xedapenen eta zuzentarauen arabera. Entitate elkartuak bakarrik izango dira ordezkari organoko kide.

Presidenteak, presidenteordeak, idazkariak, diruzainak eta bokalek osatuko dute. Gutxienez, bokal 1 egongo da eta, gehienez, 20.

Batzar Nagusiak aukeratuko ditu Zuzendaritza Batzordeko kideak, eta baita haien betetzen dituzten karguak ere. Zuzendaritza Batzordeak berak izendatu ahal izango ditu idazkariaren eta diruzainaren ordezkariak bokalen artean, edozein arrazoiengatik falta badira; bidezkoak iruditzen zaizkion batzordeetako eta karguetako arduradunak ere izenda ditzake.

Bilera bat egin beharko du, gutxienez, sei hilean behin, eta Elkartearen jarduerak behar bezala garatzeko behar den bakoitzean.

16. artikulua- Zuzendaritza Batzordeko kideek bileretara behin eta berriz bertaratu ezean arrazoi justifikaturik gabe, kargu uztea ekarriko du.

17. artikulua- Batzar Nagusiak aukeratuko ditu Zuzendaritza Batzordea osatzen duten karguak. Karguak bi urterako izango dira, nola eta Batzar Nagusiak espresuki errebokatzen ez dituen. Karguak berrautatuak izan daitezke.

Zuzendaritza Batzordea eratzeko edo osatzeko kideak izendatzerakoan edo hautatzerakoan, emakume eta gizonen arteko ordezkari orekatua ziurtatu beharko da; bestela, arrazoi oinarrikoa, objektiboa eta behar bezala arrazoitua egon behar du.

Emakume nekazarien Estatutuari buruzko urriaren 15eko 8/2015 Legeko 7.5 artikulua kide anitzeko organoetako ordezkari orekatuak definitzen ditu: lau kide baino gehiagoko organoetan, sexu bakoitzetik %40 egon behar du gutxienez eta lau kide edo gutxiagoko organoetan, berriz, bi sexuek ordezkari egon behar dute.

Zuzendaritza Batzordean egon litezkeen plaza hutsak Zuzendaritza Batzordearen izendapenen bidez beteko dira behin-behinean, 8/2015 Legeko gidalerroak aintzat hartuz, Batzar Nagusiak erabakitzen duen arte kide berriak aukeratu edo behin-behinean izendatutako entitateak berretsi.

18. artikulua. Zuzendaritza Batzordeko kide izateko, ezinbesteko izango da:

- a) Estatutuek xedatutakoaren arabera izendatua izatea.
- b) Entitateko kide izatea.
- c) Pertsona fisikoa edo juridikoa izatea. Pertsona fisikoa izanez gero, beharrezkoa da adinez nagusia izatea, eskubide zibilak guztiz erabiltzeko aukera izatea eta ez egotea indarrean dagoen legeriak xedatzen dituen bateraezintasun arrazoietan.

19. artikulua- Batzar Nagusiak hautatu ondoren, kargua onartzen duenean edo hartaz jabetzen denean bihurtuko da Zuzendaritza Batzordeko kide.

Doakoak izango dira karguak.

20. artikulua- Zuzendaritza Batzordea osatzen dutenak kasu hauetan kenduko dira kargutik:

- a) Mandatualdia amaitzen denean.
- b) Dimititzean.
- c) Ezgaitasun arrazoia gertatzen denean.
- d) Batzar Nagusiak izendapena ezeztatzen duenean Estatutu hauek xedatutakoa aplikatuz.
- e) Pertsona fisikoa hiltzen denean edo pertsona juridikoa desegiten denean.
- f) Entitate elkartu izateari uzten denean.

Batzarkidea kargutik *a)* ataleko arrazoiagatik kentzen denean, Zuzendaritza Batzordeko kideek beren eginkizunekin jarraituko dute Batzar Nagusiaren hurrengo bilera arte. Bilera horretan, kargu berriak hautatuko dira.

Batzarkidea kargutik *b), c), d), e)* edo *f)* ataleko arrazoiagatik kentzen denean, Zuzendaritza Batzordeak berak izendatuko du behin-behinean kide berria. Izendapena Batzar Nagusiari aurkeztuko zaio, hark berretsi edo atzera bota dezan; atzera botatzen badu, beste norbait izendatuko du.

Zuzendaritza Batzordeko osaketan egiten diren aldaketa guztiak Elkarteen Erregistroari jakinaraziko zaizkio.

21. artikulua- Zuzendaritza Batzordearen eginkizunak dira:

1. Elkartearen ohiko kudeaketa zuzentzea, Batzar Nagusiaren jarraibideen arabera eta kontrolaren pean.
2. Elkarrekin garatu beharreko jarduerak programatzea.
3. Tokiko ekintza taldeentzat aurreikusitako Erabakitze Organoaren eskumenak erabiltzea.

4. Gastuen eta diru sarreraren urteko aurrekontua Batzar Nagusiari aurkeztea, hark onar dezan, eta baita aurreko ekitaldiko kontuen egoera ere.
5. Batzar Nagusiaren bileretako gai zerrenda prestatzea, eta baita haren ohiko bileren eta bilera berezien deialdiak erabakitzea ere.
6. Entitate elkartuek egindako proposamenei edo iradokizunei erantzutea eta, haien inguruan, behar diren neurriak hartzea.
7. Elkartearen Estatutuak eta Barne Araudia interpretatzea eta betetzen direla zaintzea, haien hutsuneak betez, betiere elkarteei buruz indarrean dagoen legeriaren menpe.
8. Entitate elkartu berrien onespenez erabakitzea.
9. Antolamenduari buruzko barne arauak ematea eta Batzar Nagusiari espresuki izendatu gabeko eginkizun guztiak betetzea.
10. Batzar Nagusiak erabaki espresu bidez ematen dizkion eskumenak erabiltzea, betiere haren eskumen eskusiboak ez badira.
11. Elkartea ordezkatzeta, zuzentzea eta kudeatzea, Zuzenbideak uzten dioen zabaltasun guztiarekin; ahalordeak emago ditu eta ahalmenak eskuordetuko ditu, horretarako.
12. Eta oro har, Elkartea ondo eta zuzen administratzeko dagozkion eginkizun guztiak.

22. artikulua- Zuzendaritza Batzordea bilduko da presidenteak edo presidenteordeak biltzeko eskatzen dioen bakoitzean; biltzeko eskaera bere kabuz edo gutxienez bost batzordekideren eskariz egingo dio. Bileretako buru izango da presidentea eta, hura ez badago, presidenteordea eta, biak falta badira, urte gehien dituen batzordekidea.

Zuzendaritza Batzordearen erabakiak baliodunak izango badira, bilerara joandako pertsonen botoen gehiengoz hartu beharko dira, eta bileran batzordekideen erdiak egon beharko du.

Zuzendaritza Batzordeko kideek beste batzordekideen bidez ordezkatuak egon daitezke. Ordezkaritza idatziz jarrita egongo da eta Zuzendaritza Batzordearen bilera bakoitzerako izango da.

Idazkariak akta idatziko du bilera bakoitzeko, eta akta dagokion Liburura transkribatuko da.

KIDE BAKARREKO ORGANOA

PRESIDENTEA

23. artikulua- Elkartearen presidenteak Elkartearen legezko ordezkari izango du bere gain eta Zuzendaritza Batzordeak eta Batzar Nagusiak hartutako erabakiak betearaziko ditu. Bi horien presidente izango da, era berean.

24. artikulua- Presidenteari dagozkio Zuzendaritza Batzordearentzat edo Batzar Nagusiarentzat espresuki izendatuta ez dauden ahalmenak; bereziki, hauek:

- a) Zuzendaritza Batzordeak eta Batzar Nagusiak egiten dituen bilerak deitzea eta amaitutzat ematea, bien bileretako eztabaidak zuzentzea eta, bozketetan berdintasuna egonez gero, kalitateko botoa ematea.
- b) Elkartearen jarduera plana Zuzendaritza Batzordeari proposatzea, Elkartearen zereginak bultzatuz eta zuzenduz.
- c) Balio den eran erabakitako ordainketak egintzea.
- d) Presakoak izan daitezkeen gaiak ebaztea eta ebazpen horien berri Zuzendaritza Batzordeari ematea haren hurrengo bileran.
- e) Elkartea ordekatzea, zuzentzea eta kudeatzea, betiere Zuzendaritza Batzordeak edo Batzar Nagusiak espresuki eskuordeten dioena.
- f) Elkartearen xedeak betetzen direla zaintzea.
- g) Bileretako gai zerrendak erabakitzea.
- h) Batzar Nagusiak edo Zuzendaritza Batzordeak hartutako erabakiak betearaztea.
- i) Idazkariak emandako ziurtagiriei bere onespina ematea.
- j) Batzar Nagusiak erabaki adieraziaren bidez izendatzen dizkioen eskumenak erabiltzea, betiere haren eskumen eskusiboak ez badira.

PRESIDENTEORDEA

25. artikulua- Presidenteordeak presidenteari lagunduko dio eta, hark denbora batez bere kargua betetzerik ez badauka, presidente kargua hartuko du. Halaber, presidenteak espresuki eskuordetzen dizkion ahalmenak izango ditu.

IDAZKARIA

26. artikulua- Zehazki esanda, idazkariaren ardura izango dira Elkarteko kide izateko eskaerak jasotzea eta tramitatzea, entitate elkartuen fitxategia eta Erregistro Liburua eramatea eta Akten Liburua zaintzea eta idaztea; egin beharreko ziurtagiriak ere berak egingo ditu.

Era berean, elkarteei buruz indarrean dauden lege xedapenak betetzen direla zainduko du, Elkartearen dokumentazio ofiziala gordeko du eta Elkarteko liburuen eta artxiboaren inguruko ziurtagiriak egingo ditu; horrez gain, Zuzendaritza Batzordeko kideen izendapenen eta egoitza sozialaren aldaketen nahitaezko komunikazioak helaraziko dizkio agintaritza

eskudunari.

DIRUZAINA

27. artikulua- Diruzainak diru sarreren eta eginiko ordainketen berri emango du, diru sarreren eta gastuen aurrekontua formalizatuko du eta aurreko ekitaldiko kontuen egoera azalduko du. Horiek Zuzendaritza Batzordeari aurkeztuko dizkio eta Zuzendaritza Batzordeak Batzar Nagusiari, hark onar ditzan.

BOKALAK

28. artikulua- Bokalen egitekoa izango da laguntzea Zuzendaritza Batzordean lantzen diren gaiak aztertzen eta eztabaidatzen eta, bereziki, Zuzendaritza Batzordeak zehazki agintzen dizkion eginkizunetan.

HIRUGARREN KAPITULUA

ENTITATE ELKARTUAK: ONARTUAK IZATEKO ESKAKIZUNAK, PROZEDURA ETA MOTAK

29. artikulua- Elkarteko kide izango dira Elkarteko entitate elkartu izateko eskatzen duten pertsona juridikoek, betiere Elkarteko entitate elkartu gisa beren eskubide guztiak erabiltzeko eta lupertzeko modua duten bost entitate elkartuk proposatzen badute, elkarteak arautzen dituzten legeek xedatutakoa betetzen badute, Elkartearen xedearekin, hau da, landa garapenarekin lotutako jarduerak garatzen badituzte eta Zuzendaritza Batzordearen onespena badute.

30. artikulua- Elkarteko entitate elkartu gisa ez onartzeko erabakiaren aurka gorako errekurtsioa aurkez daiteke Batzar Nagusian.

31. artikulua- Elkarateak ohorezko kide izenda ditzake Elkartearen kide izateko behar diren baldintzak bete arren Elkartearen xedeei bere presentzia fisikoaz zerbitzatu ezin dizkieten pertsonak, Zuzendaritza Batzordearen erabakiz. Ohorezko kide izenda ditzake, baita ere, Elkarteko kide izaterik ez eta Elkartearen xedearen arloan jarduera aipagarriak gauzatu izan dituzten edo gauzatzen dituzten pertsona fisikoak. Hala izendatutako kideak ohorezkoak baino ez dira izango eta, beraz, juridikoki ez dira Elkarteko kide izango; ez dute eskubiderik izango Elkarteko gobernu eta administrazio organoetan parte hartzeko eta betebeharrak guztietatik salbuetsita egongo dira.

32. artikulua- Eskubide osoko entitate elkartuez gain, pertsona fisikoak eta juridikoak Elkarteari atxiki daitezke kide laguntzaile gisa, baldin eta eskaera egin eta Zuzendaritza Batzordeak espresuki onartzen baditu eta haien jarduerak edo ekarpenak Elkartearen xedeari mesede egin baldin badieazioke.

Batzar Nagusiak erabakiko du kide laguntzaileek ordaindu beharko duten ekarpen ekonomikoa.

Kide laguntzaileek eskubidea izango dute Elkarteko Batzar Nagusiaren bileretara joateko hitzarekin baina botorik gabe, eta baita Elkartearen eta horren jardueren inguruko kexak eta iradokizunak aurkezteko ere. Kexak eta iradokizunak gobernu organoei aurkeztuko dizkiete idatziz.

Kide laguntzaileen betebeharrak izango dira Elkartearen jardueretan parte hartzea, haren helburuak bete daitezzen lan egitea, Estatutuek, Barne Araubideak eta gobernu organoen erabakiek xedatutako zerbitzuak ematea, Batzar Nagusiaren bileretara joatea, ezartzen zaizkien ekarpenak egitea eta Estatutuek xedatutakoa errespetatzea.

Kide laguntzaile izateari Zuzendaritza Bataordearen erabakiz utziko zaio. Zuzendaritza Bataordeak bere irizpidez hartuko du erabakia; kide laguntzaile gisa aldi baterako onartzea ere erabaki dezake.

ENTITATE ELKARTUEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

33. artikulua- Entitate elkartu ororen eskubideak dira:

- 1) Boto eskubidea erabiltzea.
- 2) Elkartearen jardueretan parte hartzea.
- 3) Batzar Nagusiaren bileretara deitua izatea, haren bileretara joatea eta bileretako eztabaidetan parte hartzea.
- 4) Elkarteko gobernu eta ordezkaritza organoen osaeraren gaineko informazioa jasotzea, eta baita haien kontuen egoerari eta jardueren garapenari buruzkoa ere.
- 5) Elkarteko entitate elkartuen liburu, akta liburu eta kontu liburuetara jotzea, datuak babesteko araudiak xedatutako moduan.
- 6) Sufragio aktiboko eta pasiboko eskubideak erabiltzea Elkarteko edozein kargutarako.
- 7) Elkartea edozein unetan uztea, hartutako eta bete gabeko konpromisoak betetzekotan betiere.
- 8) Elkarteak hartutako erabakiak inpugnatzea eta horien ondoriozko erantzukizunak eskatzea.
- 9) Entzuna izatea haien aurkako zehapen neurriak hartu

aurretik eta halako neurriak hartzeko bidea eman duten egintzen berri jasotzea. Zehapenik ezarriz gero, zehapen hori ezartzeko arabakiak arrazoituta izan behar du.

- 10) Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legeko 26. artikulua xedatzen dituenak.
- 11) Elkartearen enblema erabiltzea, balego.
- 12) Estatutuen eta, egonez gero, Barne Araudiaren ale bana edukitzea eta eskaerak eta kexak zuzendaritza organoei aurkeztea.
- 13) Elkartearen ekitaldi kolektiboetan parte hartzea eta entitate elkartu guztiek erabiltzekoak diren elementuak erabiltzea, Zuzendaritza Batzordeak erabakita daukan moduan.

34. artikulua- Entitate elkartuen betebeharrak dira:

- a) Gogotsu parte hartzea Elkartearen helburuak bete daitezen.
- b) Gastuei aurre egiten laguntzea, Batzar Nagusiak finkatutako kuotak, derramak eta bestelako ekarpenak ordainduz.
- c) Elkartearen Estatutu hauek eta organo zuzendariak balio duen eran hartutako erabakiak ontzat hartzea eta betetzea.
- d) Batzar Nagusiaren eta Zuzendaritza Batzordearen bileretara, asanbladetara, bileretara eta egiten diren gainerako ekitaldietara joatea, haietarako deialdia jasotzen dutenean; gogotsu hartuko dute parte erabakiak hartzerakoan.

ZEHATZEKO ARAUBIDEA

35. artikulua- Zuzendaritza Batzordeak zehapenak ezar diezazkieke pertsona elkartuei, Estatutuak edo Batzar Nagusiak edo Zuzendaritza Batzordeak hartutako erabakiak behin eta berriz hausteagatik.

Zehapena izan daiteke eskubideak etetea 15 egunetik hilabate arte edo Elkartea behin betiko utzaraztea, ondorengo artikuluek xedatutako baldintzetan.

Horretarako, presidentek ikerketa bat hastea erabaki dezake, zehagarriak izan litezkeen portaerak argitzeko. Idazkariak burutuko ditu jarduketak eta Zuzendaritza Batzordeari bidezko neurriak hartzea proposatuko dio. Zehapenak ezartzea Zuzendaritza Batzordearen ahalmena izango da eta zehazpena ezarri aurretik interesdunari entzun behar zaio beti.

Zehatzeko erabakiak arrazoitua izan behar du beti eta haren aurka

errekurtsua aurkez daiteke Batzar Nagusian.

ENTITATE ELKARTU IZATEARI UZTEKO
KAUSAK

36. artikulua- Arrazoi hauengatik utziko zaio entitate elkartu izateari:

1. Elkaratearen helburuaren inguruko jarduerak garatzeko izaera galtzea.
2. Hiltzea, desegitea edo hartzekodunen konkurtsua.
3. Bere borondatez Elkartea uztea. Baja eskaera idatziz aurkeztu behar da hartu agiriarekin, eta ondorioak izango ditu eskaera hartzen denetik.
4. Ordaindu beharreko ekarpenak ez ordaintzea.
5. Entitate elkartu izateko eskatzen diren baldintzak galtzea.
6. Elkartea utzaraztea zehatu izana. Zehapena Zuzendaritza Batzordeak erabakiko du, arrazoi honengatik: Estatutu hauek eta Batzar Nagusiak eta Zuzendaritza Batzordeak balio duen eran hartutako erabakiek xedatutakoa larriki, behin eta berriz eta nahita haustea.
7. Zehapen administratibo edo penala, sexu diskriminazioa egiteagatik.

37. artikulua- Entitate elkartu bat aurreko artikuluko azken-aurreko kausan egonez gero, presidentek idazkariari agindu diezaioke aurretiazko eginbide hainbat egiteko, behar den informazioa lortzeko. Informazio horren arabera, presidentek agindu dezake jarduketak artxibatzeke edo 32. artikuluko xedatutako eran zehapen espedientea edo Elkartea utzarazteko espedientea irekitzeko.

Elkartea utzarazteko espedientea irekitzeko agintzen badu, idazkariak egitateak egiaztatuko ditu eta pertsona interesdunari idatzi bat igorriko dio egozten zaizkion karguekin. Pertsona interesdunak idatziari erantzun diezaioke bere defentsarako bidezkoak iruditzen zaizkion alegazioekin; horretarako, hamabost eguneko epea izango du. Behin epe hori igarota, nolana ere, Zuzendaritza Batzordearen hurrengo bilerara eramango da gaia eta hark erabaki beharrekoa erabakiko du, batzordekideen bostetik hiruko *quorum*arekin.

38. artikulua- Utzarazteko erabakia interesa dakiokenari jakinaraziko zaio, adieraziz erabakiaren aurka errekurtsua aurkez dezakeela Batzar Nagusiak egingo duen hurrengo ezohiko bileran; hiru hilabeteetan deitzen ez bada, horretarako bakarrik deituko da bilera. Bien bitartean, presidentek erabaki dezake pertsona inkulpatuari hark entitate elkartu moduan dituen eskubideak etetea eta, Zuzendaritza Bataordeko kide

badu, kargua betetzea etetea agindu dezake.

Utzarazteko espedientea Batzar Nagusiari aurkezten bazaio, idazkariak espedientearen laburpen bat idatziko du, Zuzendaritza Batzordeak Batzar Nagusiari aurkez diezaion pertsona inkulpatuak aurkeztutako idatzia, non egitateak behar bezala azalduko dizkion, Batzar Nagusiak dagokio erabakia har dezan.

39. artikulua- Utzarazteko erabakia arrazoitua egongo da beti eta pertsona interesdunari komunikatu beharko zaio. Pertsona interesdunak errekurtsioa aurkez dezake epaitegietan horretarako dagokion eskubidea erabiliz, betiere erabakia legeriaren edo Estatutuen aurka dagoela uste badu.

40. artikulua- Entitate elkartu bati Elkartea utzarazteko erabakia komunikatzen zaionean, uzteko erabakia izan borondatez izan zehapenaren bidez, Entitate elkartuari eskatuko zaio hartutako eta bete gabeko konpromisoak betetzeko, baldin badauzka.

LAUGARREN KAPITULUA

SORRERAKO ONDAREA ETA AURREKONTU ARAUBIDEA

41. artikulua- Elkartearen hasierako ondarea da HIRU MILA ETA BEDERATZIEHUN EURO (3.900.- €), Elkartearen entitate fundatzaileek ordaindua.

42. artikulua- Hauek izango dira Elkarreak Elkartearen jarduerak garatzeko aurreikusitako baliabide ekonomikoak:

- a) Batzar Nagusiak adierazitako sarrera kuotak.
- b) Batzar Nagusiak erabakitzen dituen aldizkako kuotak.
- c) Erakundeetako organoek eta entitate publikoek nahiz pribatuek eginiko baliabide esleipenak.
- d) Elkartekideentzat finkatutako ohiko ekarpenetatik eta ekarpen berezietatik eratorritako baliabideak. Horretarako, Batzar Nagusiak elkartekideen ekarpenak finkatu ditzake; ekarpenak urtekoak izango dira.
- e) Bere zerbitzuetatik, prestazioetatik eta ondasunetatik oro har datozen sarrerak.
- f) Herentzia, legatu, subentzio eta dohaintzetatik jasotzen dituenak.
- g) Baliabideak bilduz lortzen dituenak, bere eta entitate elkartuen helburuak betetzeko jarduera instrumental eta lagungarrien bidez. Esaterako, negozio, sozietate edo

enpresetan esku hartuz; besteekin elkartuz; besteen akzioak, kuotak edo partaidetzak harpidetuz, salerosiz edo eskuratuz; lursailak salerosiz, urbanizatuz, partzelatuz eta birpartzelatuz; ondasun higigarriak edo higiezinak salerosiz; eta eraikinak eta finkak oro har zuzenean edo zeharka ustiatuz edo errentan edukiz.

- h) Elkarateak lor dezakeen beste edozein sarrera ekonomiko, betiere Elkaratearen helburuak betetzeko bada.
- i) Elkarateak lortutako baliabideak ez dira inoiz entitate elkartuen artean banatuko.

Elkaratearen ekitaldia eta ekitaldi ekonomikoa urtekoa izango da eta urte bakoitzeko abenduaren 31n itxiko dira biak.

Elkarateak jarduera ekonomikoak, zerbitzu emateak barne, egitearen ondorioz lortzen dituzten mozkinak elkaratearen helburuak betetzeko bakarrik erabili behar dira. Mozkinak ezin dira banatu entitate elkartuen artean eta ezin zaizkie doan laga irabazi asmoduneko pertsona fisikoei edo juridikoei.

BOSGARREN KAPITULUA

ESTATUTUAK ALDATZEA

43. artikulua- Estatutuen aldaketa Batzar Nagusiak erabakiko du.

Estatutuak aldatzea proposatzeko ekimena Zuzendaritza Batzordeari dagokio; aldaketari Zuzendaritza Batzordearen erabakiz ere ekin dakioke, gutxienez inskribatutako entitate elkartuen ehuneko berrogeiak eskatu badu. Nolanahi ere, Zuzendaritza Batzordeak ponentzia bat izendatuko du, hiru entitate elkartuz osatua. PONENTZIARI ALDAKETA PROIEKTUA IDATZIKO DU, ZUZENDARITZA BATZORDEAK EMANDAKO JARRAIBIDEEI JARRAITUZ. Zuzendaritza Batzordeak finkatuko du aldaketa proiektua amaitzeko epea.

44. Artikulua- Aldaketa proiektua finkatutako epean idatzi ondoren, presidentek Zuzendaritza Batzordearen hurrengo bilerako gai zerrendan sartuko du. Zuzendaritza Batzordeak onartu egingo du aldaketa edo PONENTZIARI ITZULIKO DIO, HARK BERRIRO AZTER DEZAN.

Zuzendaritza Batzordeak, aldaketa onartzen badu, Batzar Nagusiaren hurrengo bilera bereziko gai zerrendan sartzea erabakiko du; edo berak deituko du ondorio horietarako.

45. artikulua- Batzar Nagusiaren bilera bereziaren deialdiarekin batera Estatutuen aldaketaren testua bidaliko zaie entitate elkartuei, bidezkoak iruditzen zaizkien zuzenketak idazkariari aurkez diezazkioten. Zuzenketa berri Batzar Nagusiari emango zaio, betiere zuzenketak idazkariaren esku bilera egin baino zortzi egun lehenago baldin badaude.

Zuzenketak bakarka edo taldeka aurkez daitezke, idatziz egingo dira eta testu alternatiboa edukiko dute.

Zuzenketak bozkatu ondoren, Batzar Nagusiak Estatutuen aldaketarako erabakia hartuko du eta erabakiak Elkartearen Erregistro Orokorrean inskribatzen den unetik aurrera bakarrik izango ditu ondorioak hirugarrenei dagokienez.

SEIGARREN KAPITULUA

ELKARTEAREN DESEGITEA ETA ELKARTEAREN ONDAREAREN APLIKAZIOA

46. artikulua- Elkartea desegingo da:

1. Entitate elkartueen borondatez, Batzar Nagusiak horretarako hartutako erabakiaren bidez adierazia, bilerakoen gehiengo absolutuaren botoekin.
2. Kode Zibileko 39. artikulua xedatzen dituen arrazoiengatik.
3. Epai judizial bidez.

47. artikulua- Batzar Nagusiak Elkartea desegitea erabakitzen badu, Batzorde Likidatzailea izendatuko du desegite erabakian bertan. Batzordea Zuzendaritza Batzordeko bost kidek osatuko dute eta dauden funtsez arduratuko da.

Elkarreak entitate elkartuekiko eta hirugarrenekiko obligazioei aurre egin eta sobera den ondarea, egonez gero, Euskal Autonomia Erkidegoko irabazi asmorik gabeko elkarteei emango zaie, Elkartearen antzeko helburuak dituzten elkarteei hain zuzen ere.

AZKEN XEDAPENAK

LEHENA.- Zuzendaritza Batzordearen eskumena izango da Estatutu hauetako xedapenak interpretatzea eta hutsuneak betetzea, Elkarteei buruz indarrean dagoen legeriaren menpe egonik, eta Batzar Orokorri jakinaraziko dio hark egingo duen hurrengo bileran, onar dezan.

BIGARRENA.- Batzar Nagusiak balio duen eran hartutako erabaki bidez aldatuko dira Estatutu hauek, betiere bere eskumenen barruan eta

bosgarren kapituluak xedatutako moduan.

HIRUGARRENA- Batzar Nagusiak barne araubidea onartu ahal izango du, Estatutu hauek garatzeko. Araubideak ez ditu aldatuko, inolaz ere, Estatutuetako xedapenak.